

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

2/2019 Mozioa, urtarrilaren 16koa, indarkeria matxistaren biktimak diren emakume nagusiei buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

2/2019 Mozioa, urtarrilaren 16koa, indarkeria matxistaren biktimak diren emakume nagusiei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek euskal instituzio guztiei eskatzen diete aitortu dezatela eta jakitera eman dezatela adineko emakumeek euskal eta arabar gizartearen garapenari zein eskubideak eskuratzeari egiten dioten eta egin izan dioten ekarpena, gizarte osoari zuzendutako kanpainen bidez.

2. Arabako Batzar Nagusiek euskal instituzio guztiei eskatzen diete ikusarazi dezatela adineko emakumeen aurka dauden indarkeria ezberdinak daudela, eta gizartea horretaz sentsibilizatu dezatela, honako helburu honekin: indarkeria hori desnaturalizatzea eta jendartea kontzientziaztea oraindik neurri handi batean ostenduta dagoen fenomeno batez. Horretarako, besteak beste, prestakuntza- eta eztabaida-guneak sortuko dira.

3. Arabako Batzar Nagusiek euskal instituzio guztiei eskatzen diete antolatu ditzatela indarkeria matxistari eta adineko emakumeei buruzko gogoeta-, truke- eta prestakuntza-jardunaldi espezifikokoak; jardunaldion xedea, nagusiki, izango da lanabes espezializatuak eskaintzea indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako prebentzio-, arreta- eta babes-sistemetako profesionalei, hala, emakume horien interes eta behar espezifikoaren arabarako erantzuna eman ahal izan dezaten. Jardunaldiak 2019an hasiko dira.

4. Arabako Batzar Nagusiek euskal instituzio guztiei eskatzen diete osatu ditzatela emakumeen aurkako indarkeriaz dauden azterlan eta txostenak, adin nagusiko emakumeek pairatzen dituzten indarkeria matxisten ezagutzan sakonduz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 16a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA